

**EIAF ERREGELAMENDUAREN 77. ARTIKULUKO DATUAK GRABATZEARI BURUZKO ZIRKULARRA, SIGASP APLIKAZIO INFORMATIKOAN, ETA APLIFEMP APLIKAZIORA ESPORTATZEA. (311. NEURRIA, DATUEN BILKETA)**

Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritza da Euskal Autonomia Erkidegoan EIAF 2014-2020 Programa Operatiboaren datuak biltzeko 311 neurriaren ardura duen bitarteko kudeaketa-erakundea.

311. neurriko proiektuetarako onartutako laguntzak eta gastuak Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak EIAF proiektuak kudeatzeko duen aplikazio informatikoan (SIGASP) daude grabatuta. Proiektuen informazioa eta ordainketen kontabilitate-trazabilitatea jasota daude aplikazio honetan. Geroago, informazio hori guztia Programa Kudeatzeko Erakundeak kudeatzen duen ApliFEMP aplikaziora esportatuko da.

Kudeaketa Agintaritzaren 2018ko ekainaren 4ko 3. zirkularren bidez, EIAFko 77. artikuluko espedienteak (311. neurria ApliFEMPen) ApliEMPen grabatzeko jarraibideak eta proiektu horien profila zehazten dira, urterokoan, jarduera-motan eta gastuaren kategorian oinarrituta.


Zirkular hori betetzeko eta espediente horiek ApliFEMPen grabatzea ahalbidetzeko, honako prozedura hau ezarri da, ezarritako jarraibideen arabera:

1 SIGASPen grabatutako proiektuetatik eta horien informazio fisikotik eta kontabilitatetik abiatuta, aplikazio horretan azpiproiektu berriak sortuko dira (ApliFEMP profila duten proiektuak), gastuaren urterokoaren, jarduera-motaren eta gastu-kategoriaren arabera.

2 SIGASPen sortzen diren ApliFEMP profila duten proiektu berriek hasiera batean grabatutako proiektuen informazio fisikoa eta kontabilitatekoa (hasierako laguntzari, ordainketa-datei, kontabilitate-trazabilitateari, ordainketen esku-hartzearen erreferentziei eta abarri buruzko informazioa) eta 3. zirkularrean adierazitako datu espezifikoa jasoko dituzte, eta grabatutako proiektuen eta ApliFEMP profila duten proiektu berrien trazabilitatea jasoko dute.

3 ApliFEMP profila duten proiektu berri horiek ApliFEMP aplikaziora esportatuko dira, ziurtatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 29a


Leandro Azkue
Arrantza eta Akuikultura zuzendaria
Euskal Autonomia Erkidegoko EIAFko KBeko arduradunak